

EUSKAL HERRIKO PENTSAMENDUAREN GIDA


A. Aizpuru, B. Altonaga, I. Galletebeitia eta A. Olariaga (koord.),
 Udako Euskal Unibertsitatea, 241 or.
 Bilbo, 2012

Aipagai dugun liburua 2013an Euskal Herrian argitaratu den lan akademiko interesgarrienetako bat da eta, dudarik gabe, hutsune bat betetzera dator. Ondoko lerroetan baieztapen hori arrazoitzen saiatuko naiz eta, aldi berean, liburuaren beraren ildo nagusiak laburbiltzen eta kritikatzin.

Has gaitezen izenburutik, hots, liburuaren asmoen deklaraziotik. Bi kontzeptu dira iruzkindu beharrekoak hor, *gida* eta *euskal pentsamendua*. Garrantzitsuena lehena da, alegia, liburu hau lehen hurbilpen bat dela esanez abiatzen da (gida bat) eta ez du inola ere gaia agortzeko asmorik. Bistatik galdu behar ez den ohar nagusia da hori, eta ondo emanda dago.

Baina, hortaz, zein da gaia? Zer da *euskal pentsamendua*? Liburuaren hasierako «Sarrera» laburrak (5.-6. or.) zuhurki enfokatzen du arazoa: ondoko orrietan ez da aurkituko definizio sendo eta itxirik, aitzitik, ez dago esaterik «euskal pentsamendua zer den, non hasten den eta non amaitzen den». Baina izan, bada. Oso egokia iruditzen zaigu kontua horrela bideratzea, hots, dogmatismotik ihes egitea eta arazoa zabalik dela aldarrikatzea, baina gaineratu daiteke horrek adierazten duela, baita ere, editoreen aldetik kontua oraingoz *gazte eta berde* dagoela. Hala eta guztiz ere, pauso bat aurrera ematea erabakitzen dute eta estimagarria da bai ekintza, bai hura azaltzeko modua. Etorriko dira liburu berriak

eta, haiekin, arrazoi zehatzagoak. Hau gai orokorrari eginiko lehen hurbilpena da.



1. irudia. *Euskal Herriko pentsamenduaren gida* argitalpenaren azala.

Aurkibideari begiratzea, dena den, aski da konturatzeke mota bateko autoreak eta gaiak hautatu direla, eta ez beste batzuk. Labur eta baldar esateko, euskal pentsamendua, momentuz, euskaldunon pentsamendua da, behin-behineko definizio faktiko bat ematerik badago. Eta, ondorioz, bi partetan partitua da gure liburua (behialako beste hura bezala), lehenean hamar idazle edota gai aukeratzen direla analizatzeko (hamar artikulutan) eta bigarrean beste lau, antzeko koordinatuetan baina «etorkizunari begira» etiketapen. Esango nuke bigarren zati horren berezitasuna dela Historiatik haraindi joan nahi izatea, eta garbi dagoela egileek liburu hau ez dutela Pentsamendu (edo Kulturaren) analisi historiko huts gisa enfokatu nahi izan. Liburuaren ezaugarritze orokorrarekin bukatzeko esan beharko genuke,

beraz, «gida» izateak honetan ere baduela eragina: nonbaitera gidatu nahi gaituzte editoreek, eta leku hori ez da bakarrik iragana. Baita ere Etor-kizuna ere bada.

Laburbilduz, beraz, azken urteotan euskaldunok landu eta jorratu ditugun hainbat kultur gairi buruzko artikulubilduma baten aurrean gaude, gure iragana eta etorkizuna alde edo molde uztartu nahi dituena; ihes egiten dio edozein asmo arauemaileri, baina ez du ezkututzen bere bokazio errebindikatzailea. Eta errebindikatzen dena, ororen buru, euskal kultura da. Horrek sortzen dituen arazo teoriko-praktikoak momentuz albo batera geratzen dira, etorkizunean osatuko diren lan berrien zain. Gorago aurreratu dudana bezala, nire ustez planteamendua bikaina da.

Eta emaitza? Hamalau artikulua dira (hamabost egile) eta denak ez dira ez maila ez estilo berekoak. Zaila da mota honetako iruzkin batean guztiak banan-banan analizatzea (lan luzeegia eskatuko luke horrek eta iruzkin baten mugak gaindituko lituzke) baina saiatuko naiz bakoitzari paragrafo bat eskaintzen, nire inpresio xumea jasoz. Irakurleak barkatuko ahal dit laburpenik ez ematea eta gehienetan zuzenean iritzi pertsonalera jotzea, baina ez zait beste biderik bururatzen azalpen kritiko orokor bat emateko iruzkin baten mugetan.

Lehena, XVI.-XIX. mendeetako euskal apologistei buruzkoa, Joseba Gabilondoren eskutik, liburuko onenetakoa da, nire iritzi. Gai bereziki luzea, konplikatu eta zaila, maisuki laburbildua eta atseginez erredaktatua. Egileak, gainera, ez dio muzin egiten datu berriak aurkezteari eta bere enfoke pertsonala agerian defenditzeari. Neuk, aukeran, nahiago izaten ditut hipotesi eta tratamendu tradizionalagoak

(testuan bertan iturri gisa aipatzen den Madariagarena bezalakoak), baina horrek ez dio artikuluari interesik kentzen, ematen baizik, bereziki *kultur ikaskuntzen* munduan pozik murgiltzen diren euskaldun ugarien begietan.

Hurrengo artikulua («Unamunoren atarian») Joxe Azurmendirena da, eta hori esanda agian ez dago gauza handirik gaineratzeko. Unamunorengan eta berak ordezkatzeko duen espainolismo agoniko horretan (hain garrantzitsua gerraosteko euskaltzaleengan) interesa duenarentzat zaila da irakurketa hobeagorik gomendatzea; euskaldun kulturazale arruntarentzat, berriz, atsegin biziz irakurriko duen testu bat, zer pentsatu handia emango diona.

Hirugarren artikuluan Pako Sudupek 50eko hamarkadaren ikuspegi orokor bat eskaintzen digu, bere doktorego-tesian luze eta zabal landu duena modu argi, zehatz eta zoli batean laburbilduz. Gaia, honetan ere, ezin interesgarriagoa da (nire begietan bederen) eta, aurrekoak ez bezala, ez da ia-ia landu inon ere (edo neuk ez dut horren berririk).

Existenzialismoa da laugarren artikulua gaia, Alaitz Aizpurren eskutik, eta hor nire ezjakintasuna aitortuz hasi behar dut. Alde batetik Txillardegilantzen du eta aspektu hori, ondo laburbilduta eta eramanda badago ere, ziur aski ezaguna egingo zaie euskaltzale gehienei; baina hortaz gain haren iturri intelektualak arakatzen saiatzen da, hots, existenzialismoa, eta interes handiko bide bat markatzen du Txillardegilantzen europar zabal batekin konektatzen duelarik. Itxura guztien arabera kasu honetan ez dugu honezkero egindako ikerketa baten laburpena, abiatzen ari den egitasmo baten lehen emaitza baizik. Emaitza esperantzagarria, nire ustez.

Bosgarren artikuluan Unai Apaolazak independentziaren gaia lantzen du. Laburpen gisa ageriko meritua du, bereziki iheskor eta irristakor den gai bat sistematikoki laburbiltzen eta analizatzen saiatzen baita, besteak beste, mugarri argi batzuk seinalatuz. Baina analisi gisa aski pertsonala aurkitu dut eta, aldiz, proposamen gisa aski zehaztugabea. Meritu nagusia, beharbada, gai biziki zail bat argi aurkeztea da, baina nekez jorra daiteke hain konplexua den arazoa orrialde kopuru horretan. Hurbilpen gisa da interesgarria. Etorriko dira zehaztapen berriak.

Seigarren artikuluan Araka Ikertaldeak (Gurutze Ezkurdia, Begoña Bilbao eta Karmele Perez) berriz ere hizkera-modu tradizionalagoetara garamatza, hainbat lekutan landu eta azaldu dituzten ikergaien laburpen kritiko bat eskainiz: hizkuntza, hezkuntza eta identitatearen gurutzamendua. Neu bezala kontu horretan ezjakina denak atseginez irakurriko du laburpen hori, eta gaia lehendik ezagutzen duenak ere ziur aski eskertuko du azalpenaren argitasuna.

Zazpigarren artikuluan Ibai Atutxak berriz ere identitatea lantzen du, baina oraingoan literaturaren esparrutik eta hizkera eta aparatu kontzeptual oso desberdina erabiliz aurreko artikulua- ren aldean. Aitortu behar dut Literaturaren Kritikan posizio oso solidoa eta errespetagarria duen arren, ni neu ez naizela pentsamendu-eskola horren oso zalea, eta horrek eragozten didala iritzi orekatu bat ematea. Irakurri dut, haatik, eta ziur naiz irakurle euskaldun askorentzat berebiziko interesa izango duela.

Zortzigarren artikulua- ren gaia, Josu Larrinagaren eskutik, Musika da, eta bederatzigarrenarena Artea, Beñat

Sarasola Santamariaren eskutik. Aurreko paragrafoan esan dudanak balioko ahal dit bi hauetan ere, alegia, ezjakina naizela eta nekez barnertzen naizela egileen mundu kontzeptualean. Kasu bi hauetan, gainera, gaia ere oso da arrotza niretzat, euskal literatura apur bat irakurria banaiz ere Musika eta Artea oso urrun ikusi izan baititut beti. Barkatuko ahal didate nire mugak aitortzea. Dena den, gaian interesatutakoek hausnarketa baliosak aurkituko dituzte bertan, beraien marko kontzeptualak, neuri bezala, ihes egingo badie ere.

Eta horrela hamargarren artikulura iristen gara, zeinetan Andoni Olariagak eskaintzen digun Joxe Azurmendiren pentsamenduaren analisi kritiko bikain bat. Nire iritzi- z, liburuko artikulua onenetakoa, Azurmendiren lana apur bat ezagutzen duen edozeinek atsegin handiz irakurriko duena. Sintesi gisa oso ona begitantzeaz gain, gaineratuko nuke egilearen enfoke pertsonala oso egokia iruditu zaidala. Argia, zehatza, osoa, gauza onik besterik ez zait bururatzen esateko. Artikulu pozgarri bat.

Bukatu dugu lehenengo partea eta orain bigarrenekoaren lau artikulua- k iruzkindu nahi nituzke, aurrekoak baino laburrago haatik. Has nadin esaten hamairugarrenak, J.M. Arizmendiarritari buruzkoa Iban Galletebeitiaren eskutik, egokiago dirudiela lehen partean bigarrenean baino, gaia euskal pentsalari bat denez gero (mugimendu kooperatibistaren fundatzailea), baina nekez esan daiteke analisi historiko bat denik; hori baino gehiago interpretazio pertsonal bat da. Beraz, ez dakit oso ondo non kokatu.

Beste hirurak, aldiz, errazago deskribatzen dira. Hamaikagarrenean Joseba Gabilondok Queer teoriaren

laburpen bat eskaintzen digu; hamabi-garrenean Bakarne Altonagak animalien *eskubideen* teoriei buruzko azterketa kritiko bat, eta hamalagarrenean Imanol Galfarsorok «(Post)marxismoa»-ren analisi bat. Hiruretan funtsean pentsamendu-korronte batzuen azterketa kritikoa da eskaintzen dena, Euskal Herriarekin harremanetan jarriz eta egileak beren posizio propioak naturaltasunez azalduz. Aitor dezadan Bakarne Altonagaren artikulua bereziki gustatu zaidala: gai horretan arraso ezjakina naizelarik, interes handiz segitu ditut haren azalpenak eta iritziak. Baina esango nuke hiru artikulua direla laburpen kritiko onak, gustura irakurtzeko modukoak, jakingarriak eta baliagarriak.

Azken gogoeta bat iruzkin honi amaiera emateko. Liburu eder baten aurrean gaudela uste dut. Euskal kulturaren inguruko artikulua-bilduma bat da, aski heterogeneoa eta, beraz, teoria bakar bat hedatzen ez duena, agian kezka komun batzuk bai, ordea. Baina artikulua guztiak banan-banan hartuta oso onak dira eta arestian aipatu dugun euskal kulturarekiko kezka horiek konpartitzen dituen irakurleak biziki eskertuko du bilduma batean eskuragarri jartzea. Dindilizka geratzen zaigun galdera, aldiz, hauxe da: «euskal pentsamendua» deitu behar ote diogu euskal kulturaren gaineko kezka konpartituari?

Pruden Gartzia Isasti